

2016KO APIRILAREN 28AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita zortzia.

HILABETEA: Apirila.

URTEA: Bi mila eta hamaseia.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak laurden gutxi.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Aitor Aldasoro Iturbe.

BILDUAK: Leire Artola Ugalde

Malu Valles Fernandez

Koldo Agirre Mujika

Miren Amaia Barandiaran Velez de Mendizabal

Santiago Urdampilleta Dos Santos

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2016ko martxoaren 22ko akta onartzea.

2016ko martxoaren 22ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- ORIAMENDI KALEKO URBANIZAZIO OBRAK:

Obrak eta likidazioaren onarpena.

Ezagutzera eman da 2016ko apirilaren 26ko hirigintza batzordearen proposamena:

“AURREKARIAK

I.- Gobernu Batzordeak, 2016ko urtarrilaren 7an egindako bileran gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu zuen:

“Lehenengoa.- *Euskadiko Portu, Ubide eta Bideetako Ingeniarien Kolegioko Ordezkaritzari eskatzea teknikari bat insakulazioz izendatzea. Teknikari horrek obrak eta kontratazio espedienteko dokumentazioa berrikusi ondoren, Beasaingo Oriamendi kaleko hirigintza lanen harrera onestea bidezkoa den erabakiko du. Edo, hala gerta dadinean, enpresak egin beharreko jarduketak zehaztuko ditu, obren harrera egiteko.*

Obrak jaso ondoren, horien neurketa eta ziurtagiria egin beharko dira.

Bigarrena.- *Izendatutako teknikariak emandako proposamenak edo irizpenak eskumeneko zuzendaritzari eta kontratatutako enpresari igortzea; interesatuak bidezkotzat jotzen dituen guztiak alegatzeko, azken aukeran, kontratazio organoak administrazio bidek ebatzi ditzan.*

Hirugarrena- Euskadiko Portu, Ubide eta Bideetako Ingeniarien Kolegioko Ordezkaritzak izendatutako teknikaria nor den esango dio Udalari; horrela, Udalak teknikaria ofizialki izendatuko du eta zehaztutako betebeharrak egingo ditu.

Laugarrena- Alkateari baimena ematea izendapen hori egiteko, eta adierazitako helburuak betetze aldera, beharrezko ebazpenak ematea.”

II.- Euskadiko Portu, Ubide eta Bideetako Ingeniarien Elkargoari eskaera egin eta gero, 2016-01-14ko idatziaren bitartez jakinarazten zaio Udalari, izendatutako profesionala, Igor Martin Molina jauna dela.

III.- 2016-03-10eko datarekin sarrera izan zuen udaletxean aipatutako perituak sinatutako eta bisatua dagoen txostenak (ikus 1 zenbakia duen dokumentua).

IV.- 2016-03-16an Alkateak emandako Ebazpenaren bidez, txosten horren berri eman zitzaion, obren Zuzendaritzari, URBYCOLAN, S.L., obren kontratistari eta edateko ur-saneamenduaren lanen nahiz ur zikinen saneamendu kostuak bere gai hartzen dituen Gipuzkoako Ur Kontsultorioari, hamabost eguneko epea emanaz alegazioak aurkezteko.

V.- 2016-04-04an Udaletxean sarrera izan zuen, Eñaut Muñoa Artola eta Hektor Espin Larreta jaunek eskatu zuten adierazitako txostena euskaraz helarazteko eta, era berean, alegazioak aurkezteko epea berria emateko eskatzen dute.

VI.- 2016-04-06an, Alkatea jaunak Ebazpena eman zuen egindako eskaera deuseztatuz espedientean azaltzen diren oinarri juridikoen arabera eta esan zitzaien alegazioak aurkezteko epea, interesatuek Ebazpena jasotzen zuen egunetik kontatzen hasita bosgarren egunean amaituko zelak.

VII.- Beharrezko jakinarazpenak egin ondoren, 2016-04-15ean Eñaut Muñoa Artola eta Hektor Espin Larreta jaunek alegazioak (ikus 2 zenbakia duen dokumentua) aurkezten dituzte. Alegazio horien berri, Igor Martin Molina Euskadiko Portu, Ubide eta Bideetako Ingeniariari eman zitzaion, txostena eman ahal izateko. Beste interesatuek ez dute inolako alegaziorik aurkeztu.

VIII.- 2016-04-22ko sarrera data duen txostenak, alegazioa aurkeztu dutenek esandakoari (gaiaren fondoan ez dira sartu) kontra egiten dio.

IX.- Aipatutako aurrekariak kontuan izanik, hirigintza batzordeak 2016-04-26an erabaki proposamena eman zuen, Gobernu Batzordeak onartzeko.

X.- 2016-04-27rarte ordea, URBYCOLAN, S.L.ren idatzia ez da ezagutu. Idatzi hau, Korreosen epe barruan (2016-04-7) aurkeztu zen eta udal erregistroan 2016-04-19an sarrera eman ondoren, hirigintza departamentura pasatu zen.

Horren ondorioz, ondorengoa proposatu da:

Lehenik. Eñaut Muñoa Artola eta Hektor Espin Larreta jaunek aurkeztutako alegazioak ez onartzea, Igor Martin Molina Euskadiko Portu, Ubide eta Bideetako Ingeniariak 2016-04-22an emandako txostenaren arabera. Horren ondorioz:

1. Beasaingo Oriamendi kalean exekutaturako urbanizazio obren harrera egitea.
2. 2016-02-29an, Igor Martin Molina jaunak emandako txostenaren arabera adieraztea, obren azken likidazioa **765.560,60 €koa** dela (BEZ barne) eta kontratistari ordaintzeko gelditzen dena da **274.511,88 €** (BEZ barne).
3. Kontratistari diru hori ordaintzeko, kreditu aldaketa egiteaz gain, kontratistak dagokion faktura eman beharko du.
4. Gipuzkoako Ur Kontsortzioak Udalari ordaindu behar dion diru kopurua, **221.719,05 €koa (BEZ barne)**, izango da.

Bigarren. URBYCOLAN, S.L.ren idatziak perituaren txostena ontzat ematen badu ere, ondorengoa eskatzen duenez:

- Obrei harrera egitea, 2014-12-23ko datarekin.
- 274.511,88 € (BEZ barne), gehi kopuru horri dagokion legezko interesak ordaintzeko, Udalak eskaera jaso zuenetik 7 eguneko epean.

Eta, ezinezkoa izan denez behar den moduan informatzea eta batzordearen proposamena izatea, aparte ebatziko da dagokion erabakia hartuz.

Hirugarren. Erabaki honen berri interesatuei ematea, beronen aurka aurkeztu daitezkeen errekurtsioen aipamena eginez.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Gai honen inguruan, independenteak diren hiru esparru ezberdin daude:

1.- Obren harrera eta likidazioa egitea, hain zuzen ere, orain onartzea proposatzen dena.

2.- ASTAZALDI, SLP, obra zuzendaritzari kontratutik ondorioztatutako erantzukizunak eskatzeko prozedura, aztertzea.

3.- Igor Martin Molina Euskadiko Portu, Ubide eta Bideetako Ingeniariari gure babes ematea, Eñaut Muñoa Artola eta Hektor Espin Larreta jaunek bere aurka egindako adierazpenen aurrean. Gure ustetan, Euskadiko Portu, Ubide eta Bideetako Ingeniariaren Elkargoak izendatutako ingeniariak profesionaltasun eta inpartzialtasun osoz jardun du. Onartu ezinekoak dira bere aurka egindako salaketak eta horren ondorioz gaitzetsi egiten ditugu.

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 3 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 2 (Beasaingo EH BILDU)

Abstentzioak: 1 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Horren ondorioz, gehiengo botoen kopurua aurkakoen baino handiagoa denez, onartu egin da proposamena.

3.- ZERBITZUAK ESLEITZEA: Igartzako multzo monumentalaren kudeaketa eta ustiaketa.

2016ko apirilaren 15eko Kontratazio Mahaiaren ondorengo proposamenaren berri eman da:

“AURREKARIAK

1.- 2016-02-04. Gobernu Batzordeko erabakia, aipatutako zerbitzua prozedura irekiaren bidez eta deialdi publikoa eginez kontratatzeko eta baldintza plegua onartzeko.

2.- 2016-02-18. Deialdia GAOean argitaratzea.

3.- 2016-03-07. Proposamenak aurkezteko epearen amaiera.

4.- Epe barruan aurkeztutako lizitatzailleak:

LIZITATZAILEAK	SARRERA		EPEA
	Erregistroa	Data	
DOLAREA + ON TIME	1011	2016/03/04	Epe barruan
LUIS MARIA ORMAETXEA SANTSIÑENA	1025	2016/03/07	Epe barruan
ALDABE KOOPERATIBA ELKARTEA	1054	2016/03/07	Epe barruan

A kartazala ireki eta lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu ondoren, ondorengoaren berri eman da:

DOLAREA + ON TIME

DOLAREA HOTELA, S.L.:

Enpresaren helburu soziala ez dator bat kontratuaren helburuarekin. Beraz, ez du betetzen baldintza pleguan esandakoarekin (5. Artikulua, A kartazala: KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA, c) atala). Nahiz eta Udala jakitun izan merkatal horrek 2011-03-25etik 2014-03-15era, burutu duela Igartzako multzo monumentalaren kudeaketa eta ustiaketa zerbitzua, gertatzen dena da, lizitazio horretarako onartutako pleguan, orain ez bezala, ez zela eskatzen pertsona juridikoaren jardura kontratuaren helburuarekin zer ikusia izatea.

Gehiago esan daiteke:

- Lehenengo aldia zen zerbitzu hori kontratatzen zela, izan ere, ordura arte ez zen amaitu multzo monumentala osatzen duten elementu nahiz eraikinen errestituzioa.

- Udalaren aldetik zerbitzua kudeatzeko irizpideak garbi ez izateak eragin zuen bai baldintza pleguan eta baita ere formalizatu zen kontratu administratiboan, bi urteetarako hasierako frogaldi epea ezartzea.
- Kontratua, lizitatzailerak bakarrari esleitu zitzaion.

ON TIME:

- Nahiz eta merkatal honen helburu sozialaren hainbat eduki, kontratuaren helburuarekin bat etorri, ez da berdin gertatzen errekeritutako moduan aurkeztu ez den emandako zerbitzuen zerrendarekin.
- Denboraldiko enpresaren elkarteak eratzeko konpromisoak ere ez du betetzen eskatzen dena, izan ere, nahiz eta esan bakoitzaren partizipazioa %50a izango dela, ez da adierazten enpresa bakoitzak kontratuaren zein zati exekutatu duen.
- Beraz, ez du betetzen baldintza pleguan esandakoarekin (5. Artikulua, A kartazala: KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA, c) eta d) atalak).
- Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiaren ustetan, lizitaziora aurkeztu den denboraldiko enpresaren elkarteak ez du kaudimen tekniko edo profesionala betetzen eta lizitaziotik kanpo utzi zaio.

LUIS MARIA ORMAETXEA SANTSIÑENA

Pertsona fisikoak ez du helburu sozialik eta horren ondorioz kontratuaren helburuarekiko harremana kaudimena duen jakiteko, azken bost urteotan emandako zerbitzuen zerrendaren bitartez egiaztatu behar da.

Azken bost urtetan emandako zerbitzuen zerrendak ez du zer ikusirik kontratuaren helburuarekin. Horrek ondorioz, Kontratazio Mahaiaren iritziz pleguan eskatzen den kaudimen tekniko edo profesionala ez du betetzen eta lizitaziotik kanpo utzi zaio.

ALDABE KOOPERATIBA ELKARTEA

Dokumentazioa eskatzen den moduan aurkeztu du, baina Administrazioarekin kontratatzeke debekurik ez izatearen nahiz zerga betebeharreran eta gizarte segurantzaren eguneratuta egotearen agiriak falta zitzaionez, aurkezteko eskatu zitzaion eta hori egiteko emandako epe barruan aurkeztu du.

Horren ondorioz, lizitaziora aurkezteko enpresa bakarra, **ALDABE KOOPERATIBA ELKARTEA** da.

2016-04-7an 9,00etan Kontratazio Mahaiaren kideak biltzen dira, **ALDABE KOOPERATIBA ELKARTEA** aurkeztutako B (memoria teknikoa) kartazala irekitzeko.

Baldintza pleguan ezarritakoaren arabera, aipatutako memoriaren azterketa, kulturako eta euskarako udal koordinatzaileak, Zumalakarregi museoko koordinatzaileak eta GOITUREko teknikariak, egingo dute, 40 puntu balio dute eta automatikoki ebaluatzeak ez diren irizpideen arabera, hau da:

- Igartzako Monumentu Multzoaren eta bertan ematen diren zerbitzuen hedapena eta publizitatea. 15 puntu.
- Monumentu Multzoaren bidez udalerriko turismoaren eta kulturaren sustapena hobetzeko mekanismoa. 15 puntu.
- Kontratuaren helburuak egikaritzeko bitarteko pertsonalen antolaketa. 10 puntu.

Kontratazio Mahaia, 2016-04-15ean biltzen da, memoria teknikoa aztertzeko ardura dutenen txostena ezagutzeko. Txostena ondorengo da:

JARDUERA MEMORIA (40 puntu)

1.- Igartzako Monumentu Multzoaren eta bertan ematen diren zerbitzuen hedapena eta publizitatea. 15 puntu.

Esleipenak irauten duen bitarteko zerbitzuaren hedapenaren planifikaziorik ez dute aurkeztu, ez komunikazio planik ezta kronogramarik ere.

Ondo baloratu da 2016-2017 artean Igartzarako MARKA berria sortzea eta horra iristeko bide orri estrategikoa lantzea GOIEKI, GOITUR, GOIMEN, BEASAINGO UDALA ETA GFArekin.

Ontzat jo dira eskainiko dituzten tailerrak baina fitxarik ez dute aurkeztu, helburuak, datak, nori zuzenduak, eta abar esanez eta 2016ra mugatu dira, ez dute ezer esan 2017an eta 2018an egingo dutenaz.

Erabiltzaileen aniztasuna lortzeko beharra ikusten dute baina zehaztasunik gabe, ez dute esan zer egingo duten ezta ze material erabiliko duten.

Oso egokitzat jo da Sare sozialen erabileraren inguruko proposamena eta lan tresna egokiak, buletina, mailchimp-a,... proposatu ditu: iritziak jasotzeko, agendaren berri emateko, erakusketa berriaren inguruan artistak emandako azalpenak bideo batean azaltzeko, programatu behar den musika zein antzerki lanen kritikak aurrez zabaltzeko,...

Harritu gaitu zerbitzuaren antolaketarako proposatu dituen bidelagunen artean ez egotea eskualdeko turismo bulegoak, ez eskualdeko museoak eta XVI. Mendearen bueltan ari diren eragileei, Igartubeiti baserria esaterako.

Hobekuntza planik ez du proposatu gastuen optimizazio aldera.

PUNTUAK GUZTIRA / TOTAL PUNTOS: 7

2.- Monumentu Multzoaren bidez udalerraren turismoaren eta kulturaren sustapena hobetzeko mekanismoa. 15 puntu

Turismoa sustatzeko ekintzen artean Goiturretik egiten direnak proposatu dituzte eta beste batzuk GFA-ak proposatu dituenak dira.

Udalarekin elkarlanean landutako egitasmoa da baina egokitzat ikusi dugu 2016 Bidea egitasmoaren barruko 14. eta 15. etapetako koordinazio lanak egitearena Donostia 2016, Udala eta herriko elkarteen artekoa.

Dagoeneko Udalaren agendan programatu diren ekintzak dira baina egokitzat jo da Beasaingo kultur ondarea ezagutzeko bisitak herriko eragileekin elkarlanean egitearena: Burdin Aroko herrixka eta Beasaingo Mariren kobazuloa Suhar arkeologia taldearekin.

Beasaingo toki esanguratsuen bisita Josetxo Zufiaurrerekin

Arriarango urtegia Ur Zerbitzuak enpresarekin eta Igartzako presaren bisitarekin lotuta.

Egokitzat jo dira bisita gidatu antzeztuen proposamenak.

Ondo baloratu da Turismo industrialak erakartzeko egin duten proposamenena enpresetara zuzendutako triptikoa sortzearena baina ez du ezer zehaztu dokumentu horren inguruan ez noizko egingo duen, horren banaketa eta abar.

Egokitzat jo da baina ez dute zehaztu Goiekirekin elkarlanean eskualdeko industriaren garapenaren azalpena argazkiz eta bideoz osatua egitearena, atzeritiko etorritako bezeroei harrera egiteko.

Egokitzat jo da ospakizun zibiletako Beasaingo loradenda, argazki denda, dantza talde eta abarrek eskaintzen dituzten zerbitzuen eskaintza egitearena, Bareak Merkataritza Elkartarekin eta Beasaingo denda ezberdinekin elkarlanean.

PUNTUAK GUZTIRA / TOTAL PUNTOS: 7,33

3.- Kontratuaren helburuak egikaritzeko bitarteko pertsonalen antolaketa. 10 puntu.

Lantaldea genero ikuspegitik orekatua da.

Bost kidek osatutako lan taldea proposatu dute, bakoitzaren funtzioak ondo zehaztuta: kalitate sistemaz arduratuko dena, komunikazioaz, haur eta helduentzako tailerren antolaketaz eta Igartza ordezkaturako duena erakunde publikoetan. Hala ere, esan behar da Baldintza pleguetan eskatutakora mugatu direla.

Pertsona batek kudeatzaile lana egingo duenik ez da garbi esaten.

Udalarekin harremana izango duten bi pertsona izendatu dituzte.

Hizkuntzen ezagutza, frantsesa, ingelesa kasu ez dute aipatu.

Pertsonala identifikatuta joango da, kamiseta, txaleko eta identifikazio txartela hornituta.

PUNTUAK GUZTIRA/ TOTAL PUNTOS: 5.83

PROPOSAMENA / PROPUESTA:

Aurkeztutako proiektua aztertu ondoren, honakoak dira Mahai teknikoaren ondorioak:

Orokorrean zuzentzat jotzen bada ere, ALDABE KOOPERATIBA ELKARTEA-k aurkeztutakoa, jarduera memoria 3 urteko proiektu bat izan beharrean, urteko memoria baten antz handiagoa du.

Harrigarria da Jarduera memoria egiteko jarritako 3 puntuak ez jarraitu izana eta bestelako antolaketa bat egin izana eskatutakoa adierazteko.

ALDABE KOOPERATIBA ELKARTEAK aipatzen dituen hainbat estrategia pleguetako betebeharretan sartuta daude eta egin beharrekoak direnez ez dira baloratu.

ALDABE KOOPERATIBA ELKARTEAK lortutako puntuazioaren batuketa egin ondoren, 20,16 puntu lortu ditu.

Kontratazio Mahaiak ontzat eman du kulturako eta euskarako udal koordinatzaileak, Zumalakarregi museoko koordinatzaileak eta GOITUREko teknikariak emandako txostena eta horren ondorioz proposamen ekonomikoari dagokion C kartazala irekitzen da. Emaiza honako hau:

LIZITATZAILEAK	ESKAINZA EKONOMIKOA 65.403,02+BEZ	PUNTUAZIOA
ALDABE KOOPERATIBA ELKARTEA	64.410,00 + BEZ	40 p.

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. Igartzako multzo monumentalaren kudeaketa eta ustiaketa zerbitzua ALDABE KOOPERATIBA ELKARTEA andreari esleitzeko proposatzea, baldintza plegu eta berak aurkeztutako eskaintzaren arabera.

Bigarren. Kontratuaren prezioa, HIRUROGEITA LAU MILA LAUREHUN ETA HAMAR EURO (64.410,00 €) urteko, BEZ kanpo izango da. Kontratuaren prezioa ez da berrikusiko.

Hirugarren. Egikaritze epea, lau urtekoa izango da, kontratua sinatzen denetik kontatzen hasita eta ez da luzatzeko aukerarik izango.

Lauugarren. Adjudikaziodunari adieraztea, hamar egun baliodun epean idatzi hau jasotzen duen hurrengo egunetik kontatzen hasita, ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

- Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren eguneratuta egotearen agiriak.

- Ekonomia jardueren gaineko zergan alta emanda egotearen agiria.
- 6.441,00 €ko behin betiko fidantza.

Bosgarren. Alkateari baimena ematea kontratua esleitzeko, aipatutako dokumentazioa jaso ondoren eta aldi berean kontratu administratiboa sinatzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bileran arratsaldeko zazpiak bost gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.